

-1990-

1990eko urtarrilak 6

Inoiz baino zaharrago da mundua gaur, eta neu ere ez naiz inoiz gaur bezain zahar izan. Inoiz baino zaharrago sentitzen naiz gaur, eta mundua ere ez dut inoiz gaur bezain zahar sentitu. Egun abangoardista bide dut gaurkoa heriotzari buruz.

1990eko urtarrilak 9

Gaur umekeria eroak egiten ari nintzen geltokian; buruan ideia txoro bat sartu zait, eta bakarrik eta lekukorik gabe nengoela ikusi dudanean hasi naiz umekeria horiek egiten. Ia-ia ikusi nau geltokiko langile batek; ez da konturatu hala ere eta gaitzerdi! Nik dena esplika dezaket, azkenera arte luza ditzaket egiten ditudan gauza guztiei buruzko azalpen zuzen amaigabeak; baina hau bezalako koaderno batean idatziz, ez geltokiko langile bati bat-bateko hizketa lotsatu urdurian.

1990eko urtarrilak 10

Urtarrileko merkealdiak hiriko erostetxe handietan. Hiri handia, Gorrotoaren kalea, Gorrotoaren eskola.

1990eko urtarrilak 12

Karl Marxek gizartearen antolakuntzan eta funtzionamenduan egin omen zuen azpiegituraren eta gainegituraren arteko bereizketa ospetsu hura, nabarmena da gizabanakoaren antolakuntzan eta funtzionamenduan ere. Eta argi dago lehenengoak bigarrenengan eragiten duela ere, mekanizismo erabatekoa ezin onar daitekeen arren. Materialismo historikoa ez ezik, materialismo pertsonala ere bai, alegia.

Gizartea aldatzeko, sistema suntsitzeko, nork bere burua aldatuz hasi beharra dagoela aldarrikatzen dutenek gogoan izan behar dute, horrenbestez, gizabanakoaren antolakuntzan eta funtzionamenduan –gizartearenean bezalaxe– gainegituraren aldaketak hutsalak eta faltsuak izan ohi direla, axalekoak eta itxura soilekoak, azpiegituraren aldaketarik gabe.

* * *

Literaturaren erlijioari diodan fede xeblebre hau galduko banu, libreago izango nintzateke, badakit hori, eta tarteka, batzuetan, askatasun horrekiko lilurak harrapatu ere egiten nau. Baina beldur handia diot hainbesteko askatasunari. Trapezistak sarerik gabeko jauzi libreari bezala. (Literaturaren zenbat eta zenbat definizio berri sortu litezkeen abiapuntu honetatik hasita!)

* * *

“Yo voy soñando caminos / de la tarde! / Las colinas / doradas, los verdes pinos, / las polvorientas encinas!... / ¿Adónde el camino irá?” (Antonio Machado). Inoiz amaitzen ez den jakin-min madarikatu hau! Etxean goxo-goxo egon besterik ez eta!

1990eko urtarrilak 18

Puzker bat botatzekotan nabil. Beherako pixka bat ba ote dudan ere susmoa dudanez, beldur naiz airezko puzker garbi baten ordeztu zirin parrastada mehea ez ote zaidan aterako, inoiz edo behin gertatu izan zaidan bezala. Puzkerra bota egin dut azkenean, baina indarra gutxituz badaezpada ere.

EAJ, EA eta EEk oso ondo egin dudala diote, arriskurik gabe hestea libratzea lortu dudalako. HBren ustetan, aitzitik, ez zen beharrezkoa hainbesterainoko zuhurtzia; ipurdiaren inguruko giharrei indar handiagoz eraginez gero parrastada mehea aterako zatekeelako mehatxu hori moderatu erreformistek sinetsarazi nahi diguten gezur politiko zikina besterik ez baita. PSOE eta PPren ustetan, zuhurrena puzkerrik batere ez botatzea zatekeen, orain gertatu ez bada ere hurrengoan gerta bailiteke katastrofea argi ibili ezean.

Alderdi politikoen iritzi eta erantzun mekanizista horiekin ezinezkoa zaigu puzker bat lasai botatzea ere; beharrezko bat asko dugu beren saltsa likitsean laskatuta geratzeko.

1990eko urtarrilak 26

Egunkaria irakurri dut hiriko parke batean. Herri urrun eta ez hain urrunetako borroka latzen kronikak, eta baita zenbait istripu latzen berri ere; jende asko hil omen zen atzo, egunero hil ohi den bezala, borroka eta istripu horietan. Parkearen lasaitasunean munduan zeharko ezbeharren lekuko isil eta geldia izan ondoren, parketik irtenda etorbide batean zehar abiatu naiz. Bi anbulantzia ikusi ditut presaka larrian, sirenak joaz. Espaloitik anbulantziei begira geratu naiz; espaloitik, anbulantziei inolako trabarik ezin egin diezaiekedan lekutik, alegia, ezbeharra eta haren garapena ezertarako ere ukitu beharrik gabe, estutu gabe, kontzientzia lasai. Orain ere, egunkaria irakurtzean bezala, ezbeharren lekuko isil eta geldia naiz. Ziurtasun tarte mugatu baten esparruan bizitzea bezala da, baina pozik oraindik ere tarte hori zabala delako, oraindik ere, espaloien babes eta aterpean, ezbeharren lekuko isil eta geldia izan ondoren, neure pentsamendu eta gogoeta zoroetan gal naitekeelako askatasun osoz, ezbeharrek ere gogoeta gai eginez hala nahi izanez gero.

1990eko otsailak 1

Ez ditut atzo mundu guztiak telebistan ikusi zituen irudiak ikusi. Egunkariak argazkiak, aldiz, ikusi ditut, bai, egunkariaren bidez jakin baitut berria. Dena egunkariaren eta liburuen bidez jakiten eta ikasten baitut. Ni ez nintzen jaino; argitaratu egin ninduten.

1990eko otsailak 3

Jaioterriko plaza nagusian jaialdia zegoen gaur gauean. Herriko gazte jende berria zebilen parranda eroan, ezezagunak zaizkidan belaunaldi berri freskoak. Neuk ere hamabost, hamasei, hemezortzi edota hogeitun urte izan nitueneko kontuak etorri zaizkit gogora. Neurri handi batean behintzat, bete egin ditut orduko ametsak. Nire bizitzako filmean neure gustuko eszenak eta irudiak izan dira, ez asko-asko ere baina bai orduko mito zaharren ukiezintasun beldurgarri hura urratzeko lain behinik behin. Ez naiz urrutira iritsi, ez dut inork zeharkatu gabeko muga arriskutsurik hautsi, baina ziur naiz orduan izan nintzen gazte ameslari amarrugabeak miretsi egingo lituzkeela azken urteotan izan naizenaren kontu asko. Hitza hartu dut, hitz egin dut eta azaldu eta

azaleratu egin ditut barnean nituen fantasmarik handienak, zikinenak, trabagarrienak, ezerosoenak. Hitzaren bidez, adierazi egin dut barruan nuena, eta oraindik ere horretarako aukeraren jabe naiz, hain premiazko ez bazait ere beharbada dagoeneko.

1990eko otsailak 5

Ezin da ezer lortu ordainez ezer galdu gabe. Ezin daiteke unibertsitateko ikasketetan aurreratu buruaren berezko zorroztasunaren puska handia galdu gabe. Ezin daiteke aberastu pobrea izateari utzi gabe. Aintzat hartzen al da hori?

1990eko otsailak 8

Ez bide nago maitasunerako egina. Alferrik izan ditut maitasunaren irakasle ezin hobeak neure inguruan, benetan ikasle txarra izaki, itxura denez. Maitasuna, asko jota ere, une jakin batzuetan gainezka egiten duen gehiegizko sentiberatasun merkea izan ohi da niretzat, malxo errazeko une goxo baina laburretan besterik bizi ez dudana. Gainerakoan ni neu naiz, mundua ikusten, mundua neure egiten, lekuko soil, hotz beti, bakarrik beti, neu beti, beti neu. Eta, inoiz kontrakorik pentsatuko banu ere, hala dela agirian gera dadin, azpian sinatzen dut oraintxe bertan, Donostian, 1990eko otsailaren 8an, goizeko hamaikak eta zortzi minutuetan.

1990eko otsailak 14

Teoria eta kritika literarioa egiterakoan –ideia, iritzi eta jarrera politikoez mintzatzerakoan bezala–, adierazi eta arrazoi daitekeen guztia iruditzen zait egia, berdin alde batera jo zein bestera, edozein aldetara jo baitaiteke benetan adierazpen eta arrazoiketetan. Egia urruna iruditzen zait ordea guztia, hotza, hutsa, eta sinestu ez dut batere sinisten. Horregatik praktikan dena onartzen dut, horregatik praktikaren eremuak ez du mugarik niretzat.

1990eko otsailak 15

Derrotaren lilura ezagutu duena ezin daiteke garaile zoriontsua izan oroimin zirrargarria sentitu gabe, kantu zahar ilun eta oldarkor haiekiko oroimina, orro mingotsak egiteko askatasun mugagabearen oroimina, inoiz galtzekorik ezer ez eta oihukatzeke dena izanaren oroimina. (Ikus 1990-II-5.)

1990eko otsailak 19

Hiri handiko ibilbide jendetsu batean zehar nabil, jende askorekin topo eginez, ezegunak denak, adin ezberdinetakoak, sexu eta itxura ezberdinetakoak, aurpegiera ezberdinetakoak. Nork bere eguneroko pertsonala idazten duela irudikatzen dut, tarteka, ezkutuan, esaldirik ederrenak eta zakarrenak josiz eta askatuz, bere izatearen muinik muinena utziz bertan, mundutik arrasto eder eta propioa, nork bere-berea, utzita joango direlako itxaropenetan. Hiri honetan munduko literaturarik oparo eta onena ari da idazten jendea, jende guztia, eta inor ez da horretaz ohartzen ari, une honetantxe neu izan ezik. (Ikus 1988-III-16-a.)

1990eko otsailak 20

Gorbata janzteia ez al da klaseak daudela onartzea, egon behar dutela aldarrikatzea? Ez al da kontraesan nabarmenegia hainbeste idazlek gorbata janzteko ohitura izatea? Gorbata jantzita itzultzen al da hiri handian sona eta gorazarrea lortu duen idazle ospetsua bere jaioterri txikiko etxe zahar apalera? Ez al du gorbatak itotzen orduan ere? Ez al du sentitzen idazle gorbatahunak gorbatak errealitatek urrundu egiten duela, barregarri bihurtzen, erridikulu, hala bera nola bere lana? Ala galdera hauek al dira erridikuluak? Benetan?

1990eko otsailak 27

Iluntzearekin batera heldu da kaleko gitarra jole tristea hiriko alde zaharrea bere txoko txiki apala hartzerantz, eleberri edo film bati hasiera emanez beharbada, edota tarteko atsedena bat markatuz kontaktan zehar, amaierako doinu tristea jotzeko akaso... Baina inork ere ez du irakurtzen, ez inork irakurriko ere, eleberri hori. Inork ez du ineteresik jada horrelako kontuekiko, ezta hamabost urte inguruko neska-mutikoen artean jakin-min handienekoez ere, ezta gai xelebreenen bila ibili ohi den kazetari argi ustekoak ere... Iluntzen den bitartean jotzen ditu bere kantu motelak, bera bakarrik bere eleberri arrastiriarraren egile, kontalari, protagonista, irakurle, kritikari eta ikerle.

1990eko martxoak 1

Iluntzean jendea trenean, autobusean, autoan, oinez, etxera erretiratzen da, eguna hiltzeko lana bete ondoren. Nor bere etxera doa, nor bere lekura, nor bere lekua baitu, bere-berea, leku bat munduan.

1990eko martxoak 8

“Egun batean neure estatua nahi dut jaioterriko enparantza nagusian, probintziako hiriburuan, inguruetakoa hirietan, atzerriko hiri lagunetan; kale bat, edo kale asko eta asko, are herri osoak ere, hiriak ere, hiri handiak neure izenarekin; ibaiak, haranak, mendiak, mendilerroak; liburu asko nitaz idatziak, erreportaiak, filmak, posterrak, omenezko hamabostaldiak, jardunaldiak, sariak... Horixe da nahi dudana eta ez besterik, eta horrexen bila nabil jo eta ke idatzi eta literato izateko lan lehor eta aspergarri honetan. Soilik sona eta entzute handi horretan salba baitezake gizaki koitaduak bere arimaren hustasun ilunaren ezerez mugagabea, horretan soilik eta ez beste inon. Zer egin daiteke mundu honetako bizitza eskas honetan hori adinakorik? Ezer ez.”

1990eko martxoak 10

Ez dakit bizitzen. Ez dut bizitzeko era bat, denak iruditzen zaizkit ongi eta denak erridikulu. Ez dakit hurkoa maitatzen, ezta laguna ere, ezta adiskidea ere, ezta maitaidea ere (ikus 1990-II-8). Idazten ere ez dakit, eta horretan jakingo banu ere ez nuke horrekin ezer konponduko. Nire bizitza hondamen hutsa da eta badirudi ez naizela konpontzen hasteko ere gauza, ezta konpontzeko asmoa benetan planteatzeko ere. Erridikulu existentzial ikaragarri batek nau harrapatuta. Horrela ezin da aurkitu leku bat munduan (ikus 1990-III-1). Gaur honela sentitzen eta pentsatzen dut baina atzo ez, eta agian bihar ere ez. Eta nork ez du honela sentitu eta penstatu inoiz? Nolanahi ere, gogoeta lasaigarri hau ez zait kontsolagarri gertatzen. Gaur egun iluna bizitzea suertatu zait. Alferrik da blok txikian idaztea.

1990eko martxoak 13

Irakasleak, lasai, astiro, monotono, poeta abangoardistak eta haien poetikak aztertzen eta azaltzen diharduen bitartean, ikasgelako leihotik zubi erraldoi bati begiratzen diot. Kamioi handiek zeharkatzen dute mutur batetik bestera zama ikaragarriak garraiatuz. Euri arin batek lagun egiten dio iluntze tristearen hasierari... “Zertarako dira poetikak, irakasle jauna?”, pentsa dezaket neure artean, xuxurlatu malenkoniazko hasperenez, baina ez dut galdera irakasleak entzuteko moduan ahoskatzen. Ezagutzen dut erantzuna. Badakit arrazoia duela. Segi dezala berean, beraz, lasai, astiro, monotono, iluntzeko kamioiei begiratzen diedan bitartean.

1990eko martxoak 17

Jende asko dago toki guztietan, hiri eta herri guztietan, are txikienetan ere, gazteak batik bat baina baita helduak eta atso-agureak ere, aparteko ikuspuntu berezia dutenak bizitzarekiko, bizimoduarekiko, nork bere-berea eta orokor eta nagusiaren aldean ezberdina oso, eta nork bere-berea duen ikuspegi hori ezkutuan gordetzen dutenak; inkomunikazioa bizi dute lagunartean eta ez dute idazten. Era horretan beren ikuspuntu berezi horien garbitasun misterioitsua gorde egiten dute, alferrik galtzen utzi gabe. Inkomunikazioa eta bakardadea dira horren ordaina.

Begirune zorrotza eta mirespen isila dut halakoentzat. Txoropito berritsua sentitzen naiz haien aldean, bere-bereak zituen ezkutupeko sekretu sakon eta aberatsak literatura bihurtu eta merke saldu dituen traidore diruzalea, bakarzale damutua, pailazo erridikulua.

* * *

Egurastera noa, premia baitut, paseo bat egitera, ostera bat, lasai, astiro, bide zaharretan zehar, begi berrien bila.

1990eko martxoak 23

Olatuak eta gu

Itsasertzera joan ginen. Olatuen zarata entzun genuen iritsi bezain laster. Eta olatuen zarata entzun genuen musu luze eta gozoan bat egitean ere, olatuen zarata pixkana-pixkanaka elkarri arropak erantztean, elkar besarkatu eta astiro laztantzean, olatuen zarata etengabea larrua jotzen ari ginen bitartean, aurrera eta atzera, alde batera eta bestera. Olatuen zarata pausatua entzunez hartu gintuen larrualdi nekagarriaren ondoko lo lasaiak. Eta alde egin genuenean ere hantxe geratu zen olatuen zarata pausatua etengabea, aldagaitz, berdina beti, gureak ez zuela harritu esanez bezala, ez zuela axolarik, ez zela ezer ere.

1990eko martxoak 30

Ume bat, edo gaztetxo bat, nagusi arteko solasaldian, txiki-txiki, apal, lotsati, herabe. Asko-asko pentsatu eta hausnartu ondoren, lotsa gainditzeko ahalegin handia egin eta kontu txiki bat esatera ausartzen da, hitz egitera behintzat azkenik. Nagusiek, ordea, kasurik ere ez; ume kontu hutsaltzat hartu dute hark hainbeste kostata esana.

Orduan umea, edo gaztetxoa, lotsatua oraindik ere haserre baino gehiago, nagusien lagunartea utzita, atzeko gelara doa, bakarrik egotera, bakardadera, eta han bere pentsamenduak eta gogoetak, sentimenduak eta grinak idazten hasten da, bakarrik, bere kasa, idazten, idazten eta idazten... Neu ere horrelaxe sentitzen naiz. Koaderno honetakoak ere atzeko gelako bakardadean idatzi ohi ditut, bakarrik, neure artean, aurreko egongela zabalean nagusiak etengabeko solasaldi jariakor eta interesgarrietan ari diren bitartean. Hormetatik zehar hitz solteak iristen zaizkit, entzun eta ulertzeko moduan, baina gero eta urrunago sentitzen ditut, gero eta kasu gutxiago egiten diet.

1990eko apirilak 2

Harfeflix harfeflix, abria abria abria, hitz egitearen onomatopeiak.

* * *

“Bururatzen zaidanaz besterik ez dakit nik pentsatzen. Emaidazue gai bat eta tontoa naiz.”

1990eko apirilak 6

Egunkari demokratiko baten tankerakoa naiz neu ere: arlo guztietako jendea dut onesten, onartzen, ametitzen eta aintzakotzat hartzen; eta are egunkari demokratikoez onartzen ez dituztenak ere bai inoiz. (Ikus 1989-VII-17.)

1990eko apirilak 7

Nahi bezala bizi naiteke. Ez dakit ordea nola nahi dudan bizi, hori da kontua.

* * *

“Ez iezadazue dirurik eman. Gonbida nazazue bizitzera.” (Ikus 1989-XI-7.)

1990eko apirilak 15

Pentsamendu berria sortu orduko hitzak bidaltzen dizkiot ehizatu eta hiltzera. Ezin bizi naiz, ezin onik aurkitu, neure buruan idatzi gabeko ideia edo pentsamendu librerik dagoela sumatzen dudanean bitartean.

1990eko apirilak 17

Bidaiariek ez dute azkeneko tren hartu nahi izaten. Heriotza gogorarazten die.

1990eko apirilak 19

Euria ari du gozo-gozo kalean. Bustita iritsi naiz baina etxeko arropak jantzi ditut dagoeneko eta dena prest jarri dut poesia irakurtzen hasteko, lasai-lasai, astiro-astiro, kanpoko euria bezala, gozo-gozo, gainerakoak ahaztuta. Zalantza dut hala ere, ordea, behar adina egonbarri izango ote dudanean, poesiaren misterioak ez ote zaizkidan gaur ere, beti bezala, ezkutuan geratuko, arreta pixka bat gehiago ez jartzeagatik, behar

bezain argia eta azkarra ez izateagatik, praktika eta trebetasun faltagatik, ez dakit nik zergatik...

Poeta zailak eta beren poetika are zailagoak niretzat itxiak beti. Inork ere ezin dit ate erraldoi eta astun horiek zabaltzeko giltzarik eskaini, eta atetzarraren zirrikietatik ere apenas ezer ikusterik badudan. Beren misterioak birjin gordetzen dituzte, beraz, nirekiko, ukiturik gabe, makularik gabe, tenplu poetiko itzel horiek. Baina ni pozik hala ere, aski baitut dagoeneko atariko aulkian esertzearekin, apal-apal, txapela eskuetan hartuta. Tenpluari darion santutasun aratza kutsatu egiten zaidala sentitzen dut hemen. Jakako patrikan blok txiki bat daukat beti, eta boligrafoa, noiznahi edozer idazteko, oraintxe bezala, eta ase naiz horrexekin, besterik gabe.

1990eko apirilak 23

“Begi tristeak zituen ekarri zaituen trenak. Ez kezkatu ordea, hori ez da ezer. Aurreko leihatilen geometria zen guztia, horixe besterik ez.”

* * *

Mozkor bat tranbalaka traketsean, zutik ere ezin egonda, hiriko kaleak zeharkatzeko beldurrez, noiznahi erori egin baitaiteke, noiznahi harrapa baitezake auto batek... Eskerrak hala ere etxerako bide luzean oraindik ere taberna asko dituen, trago bat hartuz atsedenditxo labur bana egiteko bakoitzean.

* * *

Beste planeta batetik etorritako kazetariaren antza hartzen diot batzuetan neure buruari. Oso ondo ere ulertzen ez dudan mundu honetan nekez esan dezaket ezertaz ondo ala gaizki iruditzen zaidan. Jakin-minez begiratu dena, hori bai. Baina iritzirik eman? Ezta pentsatu ere! (Ikus 1989-X-13 eta gainerakoak.)

1990eko maiatzak 13

Lasterketa ziklista bati begira telebistatik. Helikopteroko kamerak ehunka ziklista erakusten ditu bidean aurrera, motorzale pila bat ere bai, autoetan talde zuzendariak doaz, teknikariak, masaiariak, eta kazetariak ere bai, mordo handia, oso urrutititk etorriak zenbait, eta epaile teknikoak, eta antolatzaileak, eta... Guztiak soldata baten truk ari dira lanean, soldata onak gainera askorenak, ixuraz absurdua dirudien lan xelebrea, publizitatearen aginduetara azken finean. Bide ertzetako zelaietan bazkatzen diren behi lasaiek harridura handiz begiratzen bide dute lasterketaren iragatea. Ziklista batek ihes egiten du pilotoitik eta aurrera doa erioan, bizi-bizi. Berarekin darama, tinko itsatsia, inola ere ezin gainera kendu, marka publizitarioa, oraintxe bertan ziklistarentzat iraingarria eta umiliagarria iruditzen zaidan marka publizitario nabarmena, ziklistaren ahalegin zintzo eta gogorraren poesia guztia –halaxe iruditzen zait oraintxe bertan behintzat– alferrik galduarazten duen marka publizitario anker bihozgabea, borroka ziklista orotan garaile ezinbestekoa, iruzurgile erraldoi garaitezina.

Begiak itxi eta gogoeta egiten dut bizi garen mundu honetaz, gure gizarteaz, bizi dugun bizimoduaz. Begiak itxi eta hain mundu aldrebes eta absurduan dena posible eta zilegi dela sentitzen dut, ate guztiak zabalik daudela, ez dagoela benetan absurdua eta gaiztoa izaterik hain mundu, hain gizarte, hain bizimodu zentzugabe eta ankerrean... Askatasun primitiboa deitu izan diot aspaldidanik zirrara zorabiagarri honi.

Baina lasai, ez da ezer, berehalaxe pasatzen zait. Orain ziklista helmugara iristen ikusten dut, poz-pozik, eta hunkitu eta poztu egiten naiz neu ere berarekin batera. Hori duk sasoia, motel! Ez hago makala! Lortu duk iristea azkenean ere! Zorionak!

* * *

Liburu bat idazten ari zela, norbaitek lehenengo aldiz orri barreneko oharra idatzi zuen, asterisko batez edo zenbaki ttiki batez seinalaturik, orduantxe bertan emanaz hasiera –oharkabea, noski– gizateriaren nahasketa zoroari eta galbide ezinbestekoari.

* * *

“Hori da egin behar dena”, esan nahi nuke. “Eta hori egiten ari den idazlea neu naiz.” (Poetika eta poema.)

1990eko ekainak 2

“Ez dut inoiz etxerik izan nahi, ez dut inoiz ezeren jabe izan nahi, ez dut inoiz ezer izan nahi. Arin bizi nahi dut beti, airetik zintzilik, inon arrastorik txikiena ere utzi gabe, existituko ez banintz bezala, baina denarengatik pena lauso eta arina sentituz hala ere, ez dakit zer bezala, airean zehar, ezer ukitu gabe, hiria zeharkatzen duen globo triste baten antzera beharbada. Bihotz txiki, triste, zahar, merke eta erridikulua besterik ez duen ezezerez huts ganorabakoa.”

1990eko ekainak 26

Idazten ahalegintzen naiz behintzat. Zer gehiago egin nezake bizitzaren kontrako borroka honetan? (Ikus 1984-1.)

1990eko ekainak 30

Jauzika ibil daiteke literaturan, jauzika bolada batetik bestera, liburutik liburura jauzika. Baina zaila da jauzika segitzea behin eta berriz literaturatik irten gabe.

1990eko uztailak 29

Baina nor da erruduna errudun izatearen errudun? Galdera honek beste bi dauzka bere baitan: Nork egiten du erruduna errudun? Nork izendatzen du erruduna errudun? Eta beste galdera bat sortzen da hauen ondotik: Zein da bi galdera hauen arteko ordenarik egokiena?

1990eko uztailak 30

Eguneroko bizitzaren urtebetetzea

Eguneroko bizitzak ikatza bezalako labezomorroak etengabe ixurtzen dituen gure garai honetako egun arrunt batean, Kepa Zargoate goiz esnatu eta jaiki zen; baina egun hartan ez zela eskolara joango erabaki zuen. Neguaren atetan geundelako inprimatutako bakardadearen milaka kopien arteko bat sentitu zuen bere burua, besterik

ez. Nahiz eta egun hura bere urtebetetzearena izan. Bakero urdin arruntak utzi eta tirantezko galtza laranjaz jantzirik irten zen kalera, apur bat atondu eta gosaldu ondoren. Eskailerak jaisterakoan, gutunontzian osaba batek izkribatutako postalea kausitu zuen, urtebetetzea zela eta zorionak emanez; bide batez bere seguruetea kontseilatu nahi zion, “inoiz ez da jakiten noiz”. Paseoan hasi eta badiako kaira heldu zen berehalaxe; hantxe eserita, Otis Redding ekarri zuen gogora, aideplano eroriei nola kantatzen zien. Paseoan aurrera eginez, agure zahar bat ikusi zuen baldosa xuriko komuna publikotan sartzen, aldizkari pornografikoa eskuan. Errestaurante batetik bi gizon gazte nola botatzen zituzten ikusi zuen; gero elkarri gerritik helduta eta musuka abiatu ziren kalean aurrera. Dispensarioan antitristezi pildorak edota zorion gramoak erosteko gogoia sentitu zuen, baina tirantezko galtza laranjak jantzita zituela ez bide zen itxurazkoa horrelakoetan hastea.

Orduan hiri barruan ibili ohi diren autobusetako bat hartzea erabaki zuen. Autobusaren zain zegoela, zain egote hartan lagun zituenei izenak jartzen hasi zen. Atso zahar pare bat ari ziren etengabeko jardunean eta haiei Sofia Hitzenvova eta Ingrid Taltalpala deitu zien bere arterako. Alboko mutil gaztea Selmer Linkertermer izan zen eta atzeko gizontxo burusoila Calvin Zenarruza *Txorimalo*. Betaurrekodun bat ere hurreratu zen talde hartara, itxuraz German Seluston izena zuena. Txoferrari ere izena jarri zion autobusa etorri eta han sartu zenean: Elmer Sintrelier izango zen hura, besterik ez baitzuen merezi egunero hainbeste txanpon ziztrin eskuetan erabiltzen zituenak.

Autobusetik hiriko etxeei begira gauzak beste era batean ikusteko gogoia izan zuenez, aulkitik aulkira mugitu eta burua jarrera arraroetan jartzen hasi zen, begien ikuspegia aldatzearen. Okerka jarri zen begira ezkeraldera, okerka eskuinera, baina buruz behera jarri nahi izan zuenean, lotsatuta, utzi egin behar izan zuen jolasa. Tirantezko galtza laranjei begira geratu zen tristaturik. Txukun-txukunak zituen, batere makularik gabe, inon ere ez. Bizarrari hazka egin zion autobusa Sofia Hitzenvova eta Ingrid Taltalpala jaitsi ahal izateko gelditu zelarik. Bizarrari hazka egin zion ez zekielako zer egin. Horretarako zuen eta, azken finean, bizarra, ez beste ezertarako.

Aspertu zenean bera ere autobusetik jaitsi eta bere osabak kontseilatutako seguruetearen aurre-aurrean zegoela ikusi zuen. Hasperen egin zuen, eskuekin tiranteetatik tira eginez, etxearen aurrez aurre. Txanpon txikiak atera poltsikotik eta ate aurrera bota zituen irribarrez. Ezkerreko alderantz jo zuen gero oinez. Kiosko batean egunkaria erosi eta lehen orrialdea apur bat begiratu ondoren paperontzira bota zuen berehala. Gero, kale hartan jende askorik ez zebilela eta, egunkariari paperontzi barruan su ematea pentsatu zuen. Pospoloak atera eta hala egin zuen, pauso lasaian alde eginez, txistu joka.

Eskolarekin gogoratzen hasi zen orduan. Ez zekien zer egin goiz jaiki eta eskolara joan ezean egun soil eta solte zintzilikatu batean. Damutzen hasi zitzaion eskolara joan ez izana. Eta horrek halaber amorrua ematen zion. Artean ere hamarrak ez zirela pentsatuta bere burua lasaitu egin nahi izan zuen. Aurrera segitu zuen ibiltari oso ondo ere ezagutzen ez zuen hiriaren alderdi hartan. Udaltzainen auto bat pasatu zenean begira-begira geratu zitzaion. Punki bat ikusi zuen pasatzen bere ondoan, begi gorriak, aurpegi zurbila, zimeldua... Gaupasa egitetik bide zetorren nonbait hura, auskalo nondik, arraioa!

Eta pentsatzen hasi zen orduan Kepa Zargoate, nola eguneroko bizitza ikatza bezalako labezomorroak ixurtzen hasi zenez geroztik, etengabe, zerutik atergabe jausitako espermarekin hibaia ernari gelditua zen, alkandora arrosak, loredunak, zuriak, gorriak, beltzak, multikoloreak herrestan eramanez; nola eskaleek, badaezpada ere, trapuzko etxeak zituzten jasoak zubipean, mitxeletak babesteko; nola eraso zioten kattagorriek supermerkatuari, “altxa besoak, non da intxaur kaxafuerte”; gogoratu zuen

azkenez negua heldu eta antzerrek zeruan V bat egin zutenean nolako igoera desnatura la eman zuten Erromako poltsan bertute kardinalak, hori ere bai, eta baita bankuek “ora eta bereziki labora” lemapean erregalatutako milaka liburuak ere; liburuak, aldizkariak, egunkariak, esku-orriak, panfletoak, fanzineak, komikiak, txostenak, almanekeak, egutegiak, argazkiak, margolanak, eskulturak, filmak, antzerki emanaldiak, bideolanak, zintak, diskoak, konpaktoak, informatikako programak, puzzleak, xakeak, partxisak, karta jokoak...

Hirian aurrera ibiltzen segitu zuen gertaera haiek hasi zirenean nahi izandakoak buruan zituela, palazioak lurrera erortzen irudikatuz alegia, gartzeletako ormak pitzatzen, udaltzainen autoak su latzetan erretzen. Eskuak tirantezko galtza laranjen sakeletan sartuta, hirian ibiltzen segituko zuela erabaki zuen, nekatu arte, edo gosetu arte behintzat. Eta ea zer etortzen zitzaion burura bitartean. Kepa Zargoatek zerbait egin nahi baitzuen egun hartan.

Kontatzaile honek ez daki, ordea, zer egin lezakeen Kepa Zargoatek egun horretan. Irakurleari uzten dio aukera, istorio hasi berri honi aurrerantz bultzatzeko. Aukera batzuk iradokitzen dizkizue, besterik gabe, adio esan aurretik:

a) hortxe bukatu ipuina, istorioa edo dena delakoa.

b) Kepa Zargoateri maitaleak telefonoa jotzen dio kopre zaporeko maitasunez gauaren erdian, zorionak eman ez eta ezer ere kontseilatu gabe; orduan Kepa Zargoate biziki pozten da, eta mundua ikusteko era aldatzen du.

c) Kepa Zargoate trama poliziako baten barnean katramilatzen da oharkabea eta orduan bere gaitasun ezkutua azaltzen dira: adimen zorrotza, azerikeria, ausardia, borrokarako gaitasuna, unerik larrienetan lasaitasuna eta oreka mantentzeko ahalmen paregabea...

d) Kepa Zargoateren ibilera ganoragabeekin eleberri luze ganoragabea osatzen da, gure gaurko gizartearen hutsaltasun erabatekoaren isla.

e) Kepa Zargoatek zerbait egiten du egun horretan, inork irudikatu ere ezin lezakeen zerbait, zerbait zoragarria, liluragarria...

f) irakurketa bukatu ondoren ez gehiago pentsatu zozokeria honetaz; papera sutara bota eta kito, nazkatuta baikaude gaur egun hainbeste idazlan txepel, zozo eta ganoragabekin; ez al da ba hala benetan?

g) beste batzuk eta abar.

1990eko abuztuak 2

Ni gizon txikia naiz. Ez dut autorik, ez dut lan finkorik, ez dut dirurik, ez dut ezer handirik. Apala eta isila. Deus gutxi dakit, jakin ere. Ez dut garrantzi handirik, eragin handirik ez ein taldetan, ez ein elkartetan, eta izango banu ere alferrik zatekeen, iritzirik ere ez baitut. (Ikus 1990-IV-23-c eta gainerakoak.)

1990eko abuztuak 22

Hiri handietako geltokietan, trenaren zain nagoenean, nasaren azken mutur urruneraino jotzen dut, lasai eta astiro, ezin jakin neuk ere zeren bila.

* * *

Pentsatzeko prest nago oraindik ere agian, edozer pentsatzeko prest. Baina ez edozer egiteko libre jadanik. Hogeita zazpi urte, bizitzaren zama handia da jada. Gizakiak bere atzetik etengabe daraman hari ikusezinak ezin askatuzko korapilo nahasi

asko egiten du hainbeste denboran. Zoroak bakarrik daude zeharo libre, noizbait gogor tira egin eta haria eten zutenak. Bejondeiela! (Ikus 1989-XI-19-a eta gainerakoak.)

1990eko abuztuak 26

“Irudika ezazue, sexu gehiegikerietan oinarritutako liburuen pare, puzker, pix, kaka eta gainerako narrazkerien gehiegikerietan oinarritutakoa. Eta mutil potolo bat barrezka liburua irakurtzen, kirats higuigarri batek nazkatuta duenaren keinuak egiten dituelarik broman, poz-pozik, gorputza bihurtzen barreari eutsi ezinda... Bada hori ere idatz liteke horretara jarriz gero.”

* * *

Nahiz eta gutxi idatzi, eta are gutxi irakurri ere bolada batzuetan, nahiz eta zalantzan jarri inoiz literaturarekiko bide dudan atxikimendua, nahiz eta beheraldiak izan, garbi sentitzen dut beti oraindik ere idazle bat dagoela ni baitan, eta ez dudala inola ere horrek alde egiterik nahi. Eta eutsi egingo diodala beti, neurekin izango dudala betiko. Hori gabe ez naizelako ezer. (Ikus 1989-XII-1 eta gainerakoak.)

1990eko irailak 1

Ezta nahita ere

1. Nolatan ez hau lotsak jan, Martin? (Martin Zabalarri gutun irekia bere azken liburua dela eta)

Nolatan ez hau lotsak jan, Martin? Nolatan ez haiz konturatu erridikulua egiten ari haizela? Hire azken eleberriak ez duela argitaratzerik merezi, ezta inori irakurtzeko ematerik ere? Sutara bota eta amesgaizto baten moduan ahazten saiatzea, horixe zuan hik eleberri zakar, trakets eta zipotz hori idatzi ondoan egin beharreko lehenengo gauza; eta azkena ere, bakarra, alegia. Ez al hintzen konturatu horretaz? Ezta nahita ere ez likek inork idatziko hain eleberri txarrik. Bazirudik aldez aurretik ezer pentsatu gabe, bi ideia ziztrin ere lotzeko lanik hartu gabe, hitzaren atzetik hitza idazten hasi haizela eta halaxe segi ere harik eta ehungarren orrialdean nahikoa iritzi dioan arte. Bejondeiala, txo! Hara, edozeinek konta lezakek hirea baino istorio ederragorik, biziagorik, adierazkorragorik; idazten hastea asko likek edonork, ondo esan diat, edonork, analfabetoa ez den edonork behintzat. Adarra jo nahi al izan diguk? Ergelak ote gara ba? Zer uste duk hik: sinetsi egingo dugula bi urteko lan neketsuaren ondorena dela hire kaka mokordo kirasdun hau? Baita zera ere! Ederki jaiok gintuzkek, alajaina! Oraindik horrelakorik! Baina, baina, baina... nola daiteke, ordea, nola? Tira, tira, Martin, ez gaituk hi bezain lerdoak, eta hik baino askoz gehiago zakiagu literaturaz, motel, ez duk batere zaila eta. Benetan, neure onetik aterata naukak hire eleberri delako horrekin eta prentsako adierazpen harroputz lotsagabe horiekin. Zein arraio uste duk haizela ba? Eta zer tonto klase uste duk gabela gu?

Hara, eleberri gisa aurkeztu (eta argitaratu, alajaina!) duan testu puska ustel horrek ez dik ez hanka ez buru ez bihotz ez ezer. Kaka zahar hutsa! Kontatzen dituan istorioak sekulako tentelkeria, txaldankeria eta lerdokeria sinestezinak dituk, eta istorio ziztrin horiek “biltzen” dituen “eleberria” azkenean loturarik batere gabeko gertaera txepel zenbaiten pilaketa axolagabea besterik ez duk. Ez dik ezer iradokitzen, ez dik erreferentzia metaliterariorik batere, ez dik inolako teknika literario berezirik, ez dik

gure inguruko errealitatea islatzen, eta gure ingurukoa ez denik ere ez, ez dik batasunik ere, ez dik ezer... Tira, ezer izatekotan ere, ondoriozko ikasbide merkea dik, guztiz erreazionarioa gainera bera, atzeratua, atzerakoia, lerdoa eta ustela hori ere: pertsona normal eta esanekoak behar dugula izan, gure gaurko gizarte nahasi honi mesede egiteko prest ahal dugun neurrian. Horixe duk behintzat irakurleari hain aspergarri, gogaikarri eta gorrotagarri egiten zaion hire kontalari zozo horrek tarteka, bere burua hala pertsonaien nola irakurlearen gainetik jarrita, adierazten duena. Zintzoak izan eskubide guztiak zapaltzen dizkigun Estatu hurrupatzaile baten aurrean? Zintzoak izan gutxi batzuk aberats eta ondo bizitzeko muntatutako sistema oligarkiko tirano honen aurrean? Zintzoak izan eta kanpoko herri txiroen goseak eta bertako langile zapalduen lanak elikatutako sistema “demokratiko” itxurako honi gure onspena eskaini? Zintzoak izan, beraz, eta gizarteak markatutako bideak segi gainerakoak galarazita daudela onartuz? Zintzoak izan, alegia, eta gogoz kontra egin lana, gogoz kontra errespetatu handi-mandiak eta haien gehiegikeriak, gogoz kontra ezkondu, gogoz kontra ekarri haurrak mundura? Non uste duk bizi garela, Martin? Konturatzen al haiz nola funtzionatzen duen mundu honek? Ez. Ez haiz konturatzen, ezta hurrik eman ere. Eta ezta konturatu nahi ere, noski, horixe duk okerrena.

Hizkeraren aldetik ere, guztiz pobrea duk hire “eleberri” delako hau, gramatika eta ortografiatzako akats ugari izateaz aparte. Modu berean –gaizki alegia, bata bezain gaizki besteak– mintzo dituk pertsonaia guztiak eta kontalaria bera, eta edozein egoeratan gainera. Ulertu ere nekez ulertzen duk askotan adierazi nahi dena, edota ezta nekez ere: ezin inondik inora ulertu. Batzuetan kontu sinpleak adierazteko bortxaren bortxaz luzatutako esaldi amaiezinak ageri dituk, irakurleari haria galtzen laguntzeko primerakoak. Beste batzuetan, berriz, kontalaria motz geratzen dela zirudik, adierazi behar duena adierazteko ezgauza sentituz antzeko beste zerbait adieraztearekin etsitzera behartua bezala. Edo irakurlearekiko kidetasun erridikulu baten bila saio ergelak egiten hasten duk... Penagarria benetan!

Esan bezala, ez hanka ez buru ez bihotz ez ezer. Ez eleberri ez ezer. Baliorik batere gabeko testu puska luzea, ezin hutsalagoa. Alferrrikako lana duk hire eleberri delako hau irakurtzea. Neuk irakurri egin diat (oso-osorik, Martin, ez diat meritu makala horratik!) eta irakurketa amaitu bezain laster sentitu diat artikulugutun hau idazteko gogoia, edo premia, eleberri irakurleen onbeharrez, gaztigua izan dezaten, hire adierazpen hantusteez eta hire lagunek idatzitako aldeko kritika salduak atzipetuta horrelako liburu hutsal eta lerdoa erosten dirua eta irakurtzen denbora galdu baino lehen. Eta heuri ere, Martin, emango nitek pozik aholku bat, kasurik egingo ote duaneko itxaropenik batere banu: utzi ezak literatura, ez dakik eta hitz horrek zer esan nahi duen ere, utzi itzak behingoz idazteko kontu hauek, eta joan hadi Benidorm aldera eguzki pixka bat –edo puska bat– hartzera, bazaudek eta ondo antolatutako bidaia merkeak, hiretzako ezin aproposagoak.

Jon Koldo Lizarralde

2. Jon Koldo Lizarralderi erantzunez

Nire ustez zuk artikulugutun deitzen duzun nire –eta nire eleberriaren– aurkako testuak ez du erantzun luzerik merezi; berez laburrik ere ez, baina isilik gelditu ezinak erantzutera behartu nau. Zeuk bertan idatzitako hitz gutxi batzuk gogorarazi besterik ez dizut egingo, apur batean gogoeta egin dezazun, horretarako gauza baldin bazara: “Ezta nahita ere ez likek inork idatziko hain eleberri txarririk.” “Baliorik batere gabeko testu

puska luzea, ezin hutsalagoa.” Aztarna bat emango dizut zure gogoeta bideratzeko: neu ere horretan nago.

Martin Zabala

1990eko irailak 5

Badira oinordeko zintzoak ere, aitona zein amona, osaba zein izeba xaharra edo dena delakoa berez eta benetan maite dutenak, hilburukoa haintzakotzat hartu gabe horretarako. Halaxe maite behar du idazleak literatura, berez eta benetan. Hilburukoaren itxaropenak –ospea nahiz dirua lortzeko itxaropenak– zalantzazko unerik larrietan ez etsitzeko lagungarri behar du izan, gehienera jota ere. Eta prest egon behar du gainera idazleak –oinordeko zintzoak bezala– noiznahi ezer gabe geratzeko.

1990eko irailak 8

Non dago benetan bizitza? Nondik joaten zaigu? Nondik egiten digu alde? Alderdi batetik eusten hasi orduko beste batetik ihesi sentitzen dugu. (Ikus 1990-II-5: “Ezin da ezer lortu ordainez ezer galdu gabe.”)

Garaipena ere, esate baterako, ospea eta dirua eskuratu eta irabaztea, bizitzaren ihesa geldierazten saiatzeko modu bat besterik ez da, hasieran –kanpotik erakusten duen lilura distiratsua dela eta– erabatekoa dirudiena, behin betikoa. Ez dut aproba egin, baina itxurak direnez –eta iritsi dutenek diotenez–, garaipena deitzen den hori ere ez omen da aski bizitzari behar bezala eusteko.

Zer egin beraz? Zer egin inola ere ezin eutsi diogun bizitza horrekin? Zaila da ezinbestekoa dirudien ihes hori ametitu eta etsitzea. Bizitzari begira geratzen gatzazkio, pentsakor, nondik helduko kalkuluak eginez, gogoetak. Asmatu behar genukeela deritzogu, eta agian asmatu ere egingo dugula ibili-ibili eginda. Baina berdin gertatzen zaigu berriz ekiterakoan. Ez ote da alferrik heltzen eta eusten ahalegintzea? Begira geratze hutsa ez ote da azkenean jarrerarik egokiena?

Guzti honetaz jabetuta ere, ezin inola ere etsi ordea!

1990eko irailak 9

Ez, ez, ezer ez. Barkatu. Idazteko zerbait banuelakoan baina ez, ez, ez dut ezer. Ezer ez.

1990eko irailak 11

Beldurtu egiten nau testu luzeak idazten hasteak. Lan astuna da, arreta handia eskatzen du, eta beldur izaten naiz ez ote dudan porrot egingo, ez ote naizen kaxkarkeria nabarmenetan sartuko. Beldur handia diot ondo idazteko gaitasuna galtzeari, beldur handia diot idazteko erabat ezgauza izateari.

1990eko irailak 16

Zenbat eta gehiago idatzi bizitakoa, errazago ahazten da. Eta idatzia geratzen dena ez da gauza bera. Oroitutakoa ere ez, baina gertuago zegokeen hala ere.

1990eko irailak 22

Hiriaren kanpoaldeko auzuneetan paseatzen. Ibili eta ibili, espero ez genituen paraje ezberdin harrigarriak ikusi. Sentitu paraje arrotzetan gabiltzala. Munduaren geografia bizi pusketaka. Etxe urrun batean emakume bat ageri da etxeko leiho zabalaren kristalak garbitzen, eta baita galdera ikur misteriotsuak marrazten ere pasealariaren irudimenean, oharkabean bada ere. Gero, iluntzean, hiri barruko autobusaren zain gelditu. Barneko argi tristeak piztuta dator, goxo eta triste, abegikor eta arrotz. Gurpilen gainean eserita itzuli hirira axolagabe, ganoragabe, munduan galduta.

1990eko irailak 27

Espaloiari begira dabilen oinezkoaren antzekoa naiz idazterakoan, burumakur idazten baitut, barnebilduta, aldamenean mundua etengabe mugitzen eta iraultzen den bitartean, minez nahigabetzen, miseriaz gaineztatzen, odolez ziprizzintzen.

Bizitza ikara labur bat da, ikaragarria, beldur txiki bat, beldurgarria, izu azkar bat, izugarria. Baina bizitza espaloi zaharkitu bat ere izan daiteke, zigarrokinez, paper hondakinez, aspaldi atxiki eta belztutako txikle narratsez betea. Eta oinezko anonimo batek zapaldu eta hautsitako erloju bat ere ikus dezake espaloi gainean hartara jartzen denak.

* * *

Poemak amodioak bezala hasi ohi dira, indar handiz, bizi-bizi, distiratsu. Gero, ordea, askotan behintzat, pott egiten dute. Pott.

1990eko urriak 7

Perpaua

Aurrera doaz hitzak, punturainoko bidean, bizitza heriotzaren bila bezala.

1990eko urriak 9

Mendira joan eta ikusmen eder bat ikusi eta gozatu nahi dut. Baina ez dut bestek ikusten dutena derrigor ikusi beharrik nahi, miresgarritzat jotzen dena derrigor miretsi beharrik. Libre ikusi nahi dut paraje ederra, neure erara, bakar-bakarrik, huts-hutsean, ezeren bitartekotzarik gabe, interferentziarik gabe, bestela ezin izango baitiot eder iritzi ere.

1990eko urriak 11

Txikia sentitu nintzen halako batean, txikia sentitu nuen neure burua handitasuna eskatzen zuen gizartean. Eta trena hartu eta ihes egin nuen handik, ihes egin nuen mundura horretaraxe etorri izan banintz bezala, ihes egitera hain zuzen ere, trena hartzera. Urrutira eramango ninduen trena hartu nuen, txikia sentitu nintzelako mundu handi honetan. Baina inoiz ezin izan nintzen behar bezain urrutira iritsi. Eta trenak maitatzen ikasi nuen etsi-etsian, gozo-gozo.

* * *

“Ez dut inor izan nahi, ez dut ezer izan nahi. Munduaren alboan nago, mozkortuta, zentzu guztiak galduta, eta ez naiz inor, ez naiz ezer, eta horrelaxe ondo dago. Bihar arte behintzat.”

1990eko urriak 13

Bizitza obsesio handi bat da, obsesio txiki ugariz osatutako obsesio itzel ikaragarria, izugarria. Eta gure lana, bizitzeko lana, obsesio txiki horiek hiltzen saiatzea da, geu hil baino lehen denak akabatzeko ahaleginak egitea. (Ikus 1988-VII-4.)

1990eko urriak 27

Trena huts egin, bizitza atzeman.

1990eko urriak 28

Euria ari du. Etxera noa aterkia zabaldua. Kutunak zaizkidan ondasunak oro aterpean ondo gordeak ditudala pentsatu eta gozoa irizten diot euri emeari. Inguruko aterkigabeen ezerosotasuna datorkit burura orduan, eta munduan jendea erruz ari dela sufritzen pentsatzen dut ondoren, borroka latzetan, gerran hiltzen, gosez, egarriz, hotzez. Neu babestuta sentitzen naiz sufrimendu eta heriotza horietatik, emea iritzi berri diodan euri honen erasoetatik bezala. Etxerako bidean aurrera segitzen dut, ohean sartu eta –egoismoaren aterki handiaren babesean– loak hartzeko pozetan. (Ikus 1990-I-26.)

1990eko urriak 30

Herri zapaldua, erakunde armatuak, independentzia eta klase-borroka, sozialismoa eta antikapitalismoa, atentatuak, tiroketak, bahiketak, kartzela zigorrak, zerga iraultzaileak, tortura, errefuxiatuak eta estradizioak, deportatuak... Harritu egiten nau hori guztia, orain artean behintzat, zein urrundik bizi izan dudana pentsatzeak. Ez beste askok baino urrunagotik, baina oso urrundik hala ere, dena beti hain gertu izan dudala eta hain ikaragarria dela kontuan hartzen bada.

1990eko azaroak 2

Izateko era

Arazo bat dut besteekin, hurkoarekin. Beti izan dut arazo hori. Beti izan da arazo hori neure izaeraren parte bat. (Neu izan bainaiz beti arazo hori.)

Oso arazo arrunta da, ez dut neuk bakarrik arazo hori, jende askok nozitzen du neuk hurkoarekiko bizi dudana arazoa, ezinezona eta gatazka.

Nik ez dut normalean nahi izaten dena nahi izaten, nik ez dut nahi ohi dena nahi izaten, nik ez dut nahi behar dena nahi izaten. Nire barne gogoek ez dute logikarik, sistematik. Ume batenak baitira nire barne gogoak, nortasun zein izaera jakinik gabeko ume irrazional batenak.

Alabaina, nire barne gogoak ume batenak badira ere, nire adimena, nire mintzamina, nire oroimena, eta baita, jakina, nire gorputza ere, heldutasuna deitzen dena iristear den mutil gazte edo gizon batenak dira, gutxi gorabehera behintzat.

(Nolanahi ere, ez iezadazue galdetu zer esan nahi dudan barne gogoak esaterakoan, edota adimena, mintzamina, oroimena, eta ezta, jakina, gorputza ere, neuk ere oso ondo ez baitakit.)

Eta kontua da ume batenak diren barne gogo libre, asistematiko eta kaotiko horiek, mutil gazte edo gizon baten adimen, mintzamen, oroimen eta gorputzak mugaturik daudela, harrapatuak eta zapalduak, adimen, mintzamen, oroimen eta gorputz horiek besteren (besteen, hurkoaren) iritziari begira bizi direlako, eta besteren iritzi horrek barne gogoei oso zorrotz erreparatu ohi dielako; eta logika bat, sistema bat eskatzen.

Barne gogo libre, asistematiko eta kaotikoak eromena deitu eta eritasuntzat jotzen den fenomeno sorrazten du hura menperatu, kontrolatu eta zapalduko duen adimen, mintzamen, oroimen edota gorputz errepresiborik ez denean. Baina bestela, menperatu, kontrolatu eta zapaldu egiten badira, nik maiz antzean besteekiko, hurkoarekiko arazotzat jotzen dudan fenomeno hori da barne gogo libre, asistematiko eta kaotikoek pertsonarengan sorrazten dutena; izen jakinik ez duen eta eritasuntzat jotzen ez den arazoa da; baina arazoa da, nire ustez.

Arazo horri, hots, barne gogo libre, asistematiko eta kaotiko menperatu, kontrolatu eta zapalduak sortzen duten fenomenoari, nortasun falta deitu ohi zaio batzuetan, gutxi gorabehera behintzat, eta beharbada ez dago gaizki pentsatua ere hori, nortasuna barne gogoen logika edo sistematzat jotzea ez baita ergelkeria zentzugabea.

Ez dugu lotsatu behar, ordea, nortasun eskasekoak izateagatik. Erakutsi egin behar dugu, nortasun falta izan arren, badakigula zer den gertatzen zaiguna, ezagutzen eta aitortzen dugula besteekiko, hurkoarekiko, dugun arazoa, ezinegona eta gatazka. Erakutsi egin behar dugu nortasun falta nortasun berezi baten ezaugarri besterik ez dela; izaera tinko baten falta, gisa berean, izateko era baten ezaugarri besterik ez den bezalaxe, azken batean.

1990eko azaroak 9

Autobuseko leihatila bat zabaldua dago eta haize freskoa sartzen da. Hozten ari naiz. Ezin dut leihatila itxi, urruti baitut krisketa, eta ez dut aurreko aulkiko bidaideari ixteko eskatzerik ere nahi. Zabalik baldin badu, zerbaitegatik izango da, eta inondik inora ere nahi ez dudana orain eztabaida eta borroka ergeletan hastea da. Jertsea nuen aldean eta jantzi egin dut. Horrelakoxea naiz ni. Leihatila ixten saiatu beharrean jertsea jantzen dut. Mundu zatar honen garraztasuna da zabaldutako leihatilatik datorren hotza, hurkoa da aurreko aulkiko bidaidea. Eta jertsea literatura da, noski. Mundua konpondu beharrean literatura egiten dut.

* * *

Kazetariak egia itxuragabetu eta suntsitu egiten du. Idazleak gezurra zintzo eraiki. (Ikus 1989-X-6.)

1990eko azaroak 11

Beti dugu gertu trenen bat, edo autobusa, dena galdu eta ezer ez izateko aukera ematen diguna. Noiznahi hartzeko moduan.

1990eko azaroak 13

Te amo desde el
siglo XIII.
¿Recuerdas la última
noche?
Es fácil, como dar
un paseo,
como cantar una
canción de par
en par,
como leer un periódico
de derechas.
El mundo está hecho
de siglos
que pasan como

1990eko azaroak 14

Beste soinu bat dute abizenek kanposantuan, diferentea oso, ilun eta tristeagoa, gaixo eta ahulagoa, xahutu eta umeldua. Harrokeriaren arrastoak oro galduta, eskuragarriago sentitzen ditut abizenak kanposantuan, bizitzari buruzko gogoeta lasairako prest. Kanposantuak izango dira beti filosofiarentzako esparrurik egokiena.

1990eko azaroak 23

Zoriona kontu txikietan dago, baina bizitzako kontu txikiek kontu handien babesa behar dute tamalez. Zoriona balio ez duten gauzetan dago, baina balio ez duten gauzek gauza baliagarrien babesa behar dute.

1990eko azaroak 28

Bizi egin behar, borrokatu egin behar, etenik gabeko euripean bigundu, zimurtu eta higitutako paper bateko letrek poema bizirik gorde nahian borrokatzen diren antzera, etsi-etsian.